




## Lehen urratsen gida azkarra

Zure tresneriaren eskakizunen arabera Ef4ktur softwarearen bertsioa instalatu ostean, konfiguratu beharko dugu lanean hasi ahal izateko.

### 1º Ziurtagiria konfiguratzea:

Fakturak sinatzeko erabiliko den ziurtagiriaren datuak adieraziko dira.



**Ziurtagiriak:**  
Txartela/Token  
DNIe  
FNMT  
Beste batzuk.

### 2º Proxyren konfigurazioa:

Interneterako konexioa proxy zerbitzari baten bidez egiten denean soilik, kontsulta ezazu zure informatika-teknikariarekin, izango da beharrezkoa proxy- a Ef4ktur-en konfiguratzea (Tresnak + Ezarpenak + Proxy-a bidetik). Zeregin horretarako normalean informatikariaren laguntza beharko duzu.

Interneteko instalazio sinpleetan ez da atal horretako konfiguraziorik egin behar.



## Lehen urratsen gida azkarra

### **3º Sozietateari alta ematea:**

Fakturak jaulkitzen duen sozietateari alta eman beharko zaio Kudeaketa > Nire sozietateak bidetik.

TicketBAI aktibatzeke (zergak Euskadin ordaintzen dituzten erakundeentzat bakarrik), "Aktibatu TicketBAI sozietate honetarako" markatu eta eskudun Zerga Administrazioa adierazi.

### **4º Fakturak jaulkitzea:**

Fakturak bide honetatik sortuko dira: Fakturazioa > Jaulkitako fakturak > Zirriborro egoeran dauden fakturak.

### **5º Fakturak ziurtagiri digital bidez sinatzea:**

Sinadura txartel batekin egin behar bada, txartel-irakurgailuan sartu beharko da txartela.

Zirriborro egoeran eta sinatu/jaulki botoia erabilita, ziurtagiri digitalarekin sinatuko da elektronikoki faktura.

Behin faktura sinatuta, jaulkitakoen egoerara pasako da.

### **6º Fakturak bidaltzea:**

Jaulkitakoen egoeratik, eta bidaltzeko botoiarekin, igorriko zaio faktura administrazio publiko hartzaileari.

Sozietateak TicketBAI aktibatuta badu, bidaltzeko botoitik ere bidaliko da TicketBAI fitxategia, dagokion Foru Aldundira.

Bidalketa zuzen eginez gero, faktura bidalitakoen egoerara pasako da.

**Instalazioari eta erabilerari buruzko galdera ohikoenen erantzun guztiak hemen eskura daitezke: [www.ef4ktur.com](http://www.ef4ktur.com)**